

2002ko UDAL AURREKONTUA

Udalak inbertituko dituen 400 miloiak datorren asteko batzarrean lotuko dira

■ Batzarra: asteazkenean, udaletxeko pleno aretoan, arrasaldeko 19:30etan
■ Herenegun egindako batzarrean herritarren proposamenak eztabaidatu ziren.



Herritarren proposamenak eztabaidatzeko bilera, udaletxeko pleno aretoan.

ASTEAZKENEAN eztabaidatu ziren herritarrek egindako inbertsio proposamenak. Datorren asteazkenean, berriz, beste batzar bat egingo da, oraingoz azkenekoa. Hor Batasunako Gobernu taldeak inbertsio proposamen berria aurkeztuko du, hasieran planteatutakotik eta herritarrek egindako proposamenetatik osatutakoa.

Udal gobernuak 2002 garren urtean 400 milioiko inbertsioak egitea erabaki du. Datorren asteazkeneko bileran, beharrik markatu eta horren arabera 400 milioiak osatu arteko inbertsioak *adjudikatuko* dira. Aprobatu, plenoak aprobatu behar ditu.

INBERTSIO NAGUSIAK
Proposamenen arabera, 2002 garren urtean hirigintzan eta zerbitzu publikoetan egingo dira inbertsio nagusiak. Hirigintzan Antziola eta Latsunbe arteko enlazeak 120 miloi izango ditu eta Alde Zaharra berrietzeko hirugarren faseak (Txantxangorritik Tilosetara) 70 miloi. Zerbitzu publikoen sailan, berriz, obra eta zerbitzuek eramango dute gehiena: 62 miloi paseak. Hezkuntzari dagokionez, Arriatsun ingurugiro eskola proposatu du Batasunak eta 40 milioiko inbertsioa aurrizkusten da. Kultura, euskera eta kirolean, 5 inbertsio nagusi planteatzen dira; denera 51 milioiko partida.

HERRITARREN PROPOSAMENAK

Herritarrek proposamen asko planteatu dituzte. Horietatik honako hauek izan litezke aurrerako aukera gehiena duten batzuk, biabilitate aldetik eta bileran eman zitzaion lehentasunaren aldetik begiratuta: Martindegiko autobus parada, Sorgintxulo kolektorea, baserrientzako ura, *montakargasa* kiroldegian, kiroldegiko frontoia pintatzea eta Zikuñagako ermitarena (gestio mailan).

Paradorea, oraingoz, barrutik bota bakarrik egingo da; tren azpiko pasabideek itxoin egin beharko dute, Goiz Eguzkiko parke estaliak eta Tilosetako frontoia estaltzeak ere berdin.



Kirol elkarte eta klubetako ordezkariak.

Kirolari buruzko debatea

INBERTSIOEI buruzko batzarrak kirolari buruzko debatea piztu zuen. Kluben iritziz udalak ez die behar hainbeste laguntzen, egiten duten lana eginda. Udalaren ustez, klubei ematen zaienaz gain, kirolari zenbat ematen zaion bere osotasunean ikusi behar da. Kontua adostasunik gabe bukatu zen, baina, aurrerantzean debate bat merezi zuelakoan. □

Mural lehiaketa Institutua dekoratzeko

■ Muralak 6 metro luze eta 2.8 zabal izango ditu
■ Saria 601 Euro (100.000 pta) ■ Epea: urtarrilak 18.

HERNANI Institutuak Agustín Iturriagako egoitza dekoratzeko mural lehiaketa antolatu du. Muralaren gaia librea da eta teknika mixtoan egin daitezke. Egin beharreko lana 6x2.8 metrotako murelean joango da.

Lehiaketarako lanak A2 formatoan aurkeztu behar dira eta 60x28 cm-ko tamaina behar du zirriborroak. Mural pro-

posamenak 1.202 euroz azpitik (200.000 pta) egiteko modukoa izan behar du

Lanak urtarrilaren 18rako entregatu behar dira eta epaimahiak urtarrilaren 30ean esango du nor irabazi duen.

Saritu bakarra izango da eta 601 euro jasoko ditu.

Informazio gehiago: 943-551958 (Jesus Ezkerro). □

UTZI HERNANI PAKEAN

Pala txapelketako semifinalak, larunbatean

■ Valero-Imaz/Aitzol-Aitor eta Otaño-Lizartza/Leg-Zubi
■ Finala urtarrilaren bukaeran jokatu dute.

UTZI Hernani Pakean plataformak pala txapelketa antolatu du eta bihar goizean jokatu dira semifinalak, kiroldegiko frontoian. Semifinalak goizeko 09:00etan hasiko dira eta Valero-Imaz/Aitzol-Aitor bikoteek jokatu dute aurreneko partidua. Otaño-Lizartza/Leg-Zubi: 10:00etan hasiko da.

28 PAREJA

Txapelketan 28 bikote ateratu dira eta partiduak joan den larunbatean jokatu zituzten, Hernani eta Astigarragako frontoietan.

Antolatzaileek jakin arazi digutenez, finala urtarrilaren bukaeran jokatu da, baina, eguna eta ordua oraindik erabakitzeke daude. □

TXANTXANGORRI ELKARTEA

J. A. Aranburu San Silvestre plater tiraketako txapelaldun

■ Ehiza txapelketako saribanaketa-afaria urtarrilaren 11n egingo dute.

ABENDUAREN 30ean jokatu zen San Silvestreko tiraldia, Santa Barbaran. Irabazle J.A. Aranburu geratu zen, bigarren Antonio Redondo eta hirugarren Francisco Tejada. Desenpatea jokatu behar izan zuten hirurek. □



DENDA
ARKA

Eurorako presta zaitez, egin oparia zure buruari!

Jantzi zure ordenagailua mahai praktikoa eta eserleku komodo batekin.

Preziorik onenak **Arkan**.

Ezagutu **Uztari** estanteria; merkatuan bakarra da.



ARKA DENDA -KARDABERAZ KALEA 41 ☎ 943 33 34 87-

Xarobe
DELICATESSEN
since 1983

Produktu Bereziak

Nagusia 17 • 20120 HERNANI
☎ 943 55 21 27
POSTA ELEKTRONIKOA: xarobe@euskalnet.net



Skoda Fabia Combi Datorren jendearentzat espazio berria.

MENABI
Txingurri pasealekua, 26 Herrera auzoa DONOSTIA Tel. 943 40 42 43

Erregeen Kabalgatarik ez da izango aurten

■ Jende faltagatik ez da antolatu, baina 'zenbait ekintzek' zerikusia izan omen dute ■ Udalak antolatu behar lukeen edo ez iritzi ezberdinak daude udaletxean.

GAUZAK asko aldatu ezean, larunbat iluntzean, Hernanin ez da Erregeen Kabalgatarik izango. Orain arteko antolatzaile izan direnek Kronikari esan diotenez, ez da antolatu jenderik ez dagoelako, baina, aitortu dute Kabalgatan azken urteetan izandako *ekintzek* jendea desanimatu egin dutela. "Kabalgata umeentzako ekintza bat da, ekitiba apolitikoa, Olentzero edo beste ekintza asko bezalaxe. Iaz, justu-justu atera eta gero, pasa zena pasa zen" diote (*solidarioak* igo ziren tabladura).

Orain arte antolatu izan dutenen ustez, Kabalgata ez du udalak antolatu behar; baina, udala nork antolatu bilatzen gehixeago saiatu zitekeela ere bai, oraingo taldeak uztekoa zuela iaztik jakinda. Gazteek ere ba omen dute beren errua gauzak antolatzeko joera gutxi dutelako.



Errege magoak iazko Kabalgatan.

SUBENTZIOA PRONTO
Lurdes Etxeberria kultura zinegotziak Kronikari jakin arazi dionez, udalak nahi du Erregeen Kabalgata bultzatzea eta Kabalgata osoa ordaintzeko diru laguntza asignatua dago aspalditik. Batasunako zinegotziaren arabera, ordea, udalak ez ditu bere gain hartzen desgertutako taldeen aktibitateak:

"Hori orain arte ere hala izan da" zion Etxeberriak. "Gure lana da ekitaldiak antolatzen lagundu, subentzioak eman eta bidea erraztea. Kabalgatarekin ere hori egin dugu beti eta hala egingo dugu" dio zinegotziak.

"UDALAK BERE GAIN HARTU BEHAR DU"

Itaki Arratibel EA-EAJko zinegotziak uste du, Erregeen Kabalgata antolatzeko jenderik ez egotea ez dela kasualitatea eta azken urteetan jaso dituen eraso eta istiluengatik izan dela.

Arratibelen hitzetan, Erregeen Kabalgatak mantentzea merezi duen gauza asko ditu berekin: zaharren egoitzara bisita, erregaliak bildu eta ume pobreei eman, umeengan sortzen duen ilusioa eta abar.

Gauzak horrela, EA-EAJ-k publikoki eskatu du udalak antolatu behar duela aurtengo Erregeen Kabalgata. □



Plaza bete ume bildu zen iaz Errege bezperan.

■ PLATER TIRAKETA

Jon Azpiazu eta Norberto Zabaleta Europako txapelketara dijoaz

■ Oso urte ona dijoa Hernaniko tiratzaileena ■ Jon Azpiazuk hiru txapelketa irabazi ditu ■ Bere desioa da Hernaniko tira lekuen "auzia" azkar bukatzea, "denon onerako".

TXIRTA Elkarteko Jon Azpiazuk plater tiraketaren egoeraren urteko balorazioa egin du.

Hernaniarrek emandako maila primerakoa izan omen da. Norberto Zabaleta eta Jon Azpiazu Europako txapelketara dijoaz. Euskadiko *open-an* Luis M^a Zerain eta Jon Azpiazu bigarren geratu ziren enpatatuta. *Foso Olimpikoan* Jon Azpiazu da urte guztiko Gipuzkoako txapelduna eta Euskadiko txapelduna.

Hernaniko tira-lekuen egoera, berriz, ez zaio onena iruditzen Jon Azpiazuri eta "esfortzu bat" eskatu du konpondu dadin. □



Gipuzkoako Tiro Elkarteko lehendakaria saria ematen.

Kafetegi berria Antziolan: 'Eper' kafetegia

■ Azaroaren 24an zabaldu zuten ■ Elena jabea gustora dago jendearen erantzunarekin.



Elena Pastoriza da kafetegiko nagusia.

ANTZIOLAN kafetegi berria ireki dute: *Eper* kafetegia. Zinkoeneatik *Cuesta de la muertera* goazela, Antziolara lehenengo kruzean sartu eta eskubitara ikusiko dugu, kurbakurban.

2001eko azaroaren 24an ireki zuten. Gosaldu, hamai-ketakoa egin eta bazkalondoa pasatzeko taberna da. Elena nagusiak esan digunez, oraingo oso gustora daude jendearen erantzunarekin. □

ZAHARREN EGOITZA

Lau txapelketa eta bost irabazle, Gabonetan

■ Seiko urre txapelketa larunbatean jokatu da.

ZAHARREN Egoitzan programa berezia izan dute Gabonetan. Abenduaren 21ean hasi eta urtarrilaren 5a bitarte izan dute non gozatu Sandiusterriko aitonamonek.

SARITUAK

Ekintza horien artean, txapelketak izan dira nagusi. Jokatu

dira ia guztiak. Sarituak: *-Igel jaurtiketan:* 1)J.L.Gorostidi; 2)Marcial Amilibia. *-Puntuak:* 1)Carmen Cuende-J.L.Gorostidi; 2)Manoli Iparagirre-Paulo Zubiarrain. *-6ko urrean:* 1)Malen; 2)Tiburcio eta Alejandro (enpate). *-Tokan:* 1) J.L.Gorostidi; 2)Joxe Iztueta. □

■ ERREMONTEA - BINAKAKO TXAP.

Altuna II-Etxabek 40-34 irabazi dute

■ ATZO jokatu zuten Altuna II eta Etxabek ligilako lehenbiziko partidua. Altuna I eta Eizagirre ziren faborito, baina, Altuna II eta Etxabek hasieratik dominatu zuten partidua.

Etxabe izan zen onena eta Altuna IIak ondo lagundu zion aurrean. Eizagirrek ez zuen espero zena eman.

Etxabek datorren larunbatean du bigarren partidua, Uhartan. □

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

▶Taxiak: 943 550093
▶Udaltzaingoa: 943 333288
▶DYA: 943 464622
▶Autobusak: 943 556662
▶Anbulatorioa: 943 557750
▶Jokalaria anonimoak 943 331103

☎ FARMAZIAK

▶Egunez: Bulnes Etxeberri ☎ 943 557738
▶Gauzez: Iturralde Usurbil. Poligono 13 ☎ 943 363395

ESKERTZA

SANTI APEZETXEA LOIARTE

Orain dela egun gutxi Hernanin hil zen. Eta haren familiak eskerrona adierazi nahi dizuete samin-agurra bidali zenuenei eta bere hiletara etorri zineten guztioi.

GUZTIAGATIK MILA ESKER.

Hernanin 2002ko urtarrilaren 5ean.